

IRUTXULOKO **HITZA**

Horra zer den gure Donostia!

EUSKARAREN HIRIA LANTZEN

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020–2024

EUSKARALDIA

Abian da!

Donostiak izena eman du

bagera
Donostiako
Euskaltzaleen Elkartea

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

Denen parte hartzearekin egin behar dugu

Badira hamarkada batzuk Donostian euskararen erabilera normalizatzeko helburuarekin Udala lanean ari dela. Horretarako, bost urtean behin Euskara Zerbitzua Euskararen Plangintza Orokorrak diseinatu eta garatzen joan da hizkuntzaren ezagutza indartu, erabilera areagotu eta sentsibilizazioan eragiteko.

Une honetan 2015-2019 bitartean indarrean izan dugun plana amaitzear da eta hasia dugu berrikuspen prozesua datozen bost urteetarako berria egiteko. Prozesu honetan, aurreko plangintzetan bezalaxe, Donostiako hainbat elkarte eta eragilen parte hartzea eta ekarpena oinarri izango da. Hori dela eta, bai balorazioa egiterakoan eta baita datozen urteetako ildo nagusiak zehazterakoan ere, Udalaren Euskararen Kontseilu Sektorialarekin, gizarte esparru desberdinetako eragileekin, auzoetako euskara batzordeekin eta zenbait aditurekin ari gara lanean eskuartean duzun argitalpen honetan ikusi ahal izango duzun moduan.

Horren ondoren, donostiar guztiei zabaldu nahi diegu ekarpenak egiteko aukera. Horrela 2020ko otsaila aldera, www.donostiaeuskaraz.eus webgunean atal bat egokituko dugu zuek guztiok Donostian datozen bost urteetan hizkuntza politikaren gidari izango den planari proposamenak eta ekarpenak egiteko.

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

Argitaratzailea: Donostiako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-226-05
Zuzendaria: Nerea Lizarralde Rodriguez
Diseinua: Arantzazu Iturbe Cardona
Azala eta infografiak: Gotzon Beloki
Testuak: Inaxio Esnaola Aranzadi, Irati Salsamendi Lozano eta Peru Iparragirre
Egoitza: Ametzagaña 19, behea 20012
Telefonoa: 943 46 72 36
Webgunea: irutxulo.hitza.eus
Posta: donostia@hitza.eus
Publizitatea: pmurua@hitza.eus • 688 60 71 08

IRUTXULOKO HITZA
bai
Berria

Donostiako Hedabideak S.L.ko kideak:
bagera
BERTAKO HEDABIDEAK
eta, oraingoz, Donostiako beste 40 eragile
HITZA diruz laguntzen duten erakundeak:
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Euskara
Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Gipuzkoako Foru Aldundia

EZAGUTZETIK ERABILTZERA



Euskararen erabilera bultzatzeko horma-irudia Altzan.

2015-2019 epealdiko Euskararen Plan Orokorraren berrikuspen bat egin du Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, urteotan egindako lanaren helburuak eta landutako esparruak, martxan jarritako egitasmoak eta lortutako emaitzak birpasatuz. Euskara Donostian normalizatzen joateko ezinbesteko tresna izan da.

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019 bukatzear da. Bost urteko plana gidari izan da Donostiako Udalaren hizkuntza plangintzan eta euskara Donostian normalizatzen jarraitzeko ezinbesteko tresna izan da.

Euskararen egoerari buruzko datu adierazleetan oinarritutako irakurketa bat egin eta hiriko eragileekin bildu ostean, hiru helburu estrategikoren inguruan egituratu zuten plana: euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura sustatzea. Helburu horiez gain, zehar-lerroak ere izan ditu planak: sentsibilizazioa eta zabalkundea, auzoetako plan integralak, eta gazteak.

Helburu estrategikoen baitan esparruka garatu du plana Euskara Zerbitzuak. Horrela, euskararen jabekuntzari dagokionez, familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea izan dira landutako esparruak; euskararen erabilerari dagokionez, aldiz, administrazioa, arlo sozioekonomikoa eta aisialdia; azkenik, euskararen elikadurari dagokionez, kulturgintza, corpus plangintza, hedabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak.

Lan-esparru horietan lehendik abiatutako proiektuak garatu eta berriak jarri ditu martxan Euskara Zerbitzuak, hainbt eragilerekin elkarlanean eta euskararen normalizaziorantz leudekeen hutsuneak betez.

Euskalduntzearen garrantzia

Euskararen jabekuntza eta euskalduntzea familian, irakaskuntza arautuan eta euskaltegietan izaten da, batez ere, eta eremu horietan jarri du azpimarra Euskara Zerbitzuak. Familia transmisioari dagokionez, gurasoak etxeko erabileraren garrantziaz sentsibilizatzea izan da gakoetako bat. Esaterako, euskararen erabilera familiaren barne-bizitzan areagotzeko, gurasoek eta aitona-amonek oinarrizko ezagutza izan dezaten xede bereziko ikastaroak antolatu ditu.

Bost urteotan, 2.044 guraso eta aitona-amona aritu dira ikastaro horietan euskara ikasten, 195 taldetan banatuta. Bestalde, gurasoekin harremanetan jarri da Euskara Zerbitzua, haur jaioberriak dituztenean eta 2 urteko haurrak eskolan matrikulatzeko garaian, gurasoen erabakietan euskara kontuan hartzeak duen garrantziaz jabetu daitezen. Gainera, hiriko zenbait parke eta jolaslekutan Parketarrak ekimena antolatzen jarraitu dute, haurrei eta haien gurasoei parkean euskaraz aritzeko baliabideak emanez.

Irakaskuntza arautuari eta haren inguruari erreparatuta, D eredua da nagusi hirian, euskarazko irakaskuntzaren alde egiten baitute oro har gurasoek. Bost urteotan Donostiako 83 ikastetxeekin eta Berritzegunearekin harremanak sendotzen jarraitu du Euskara Zerbitzuak, eta hainbat esperientzia pilotu jarri ditu martxan. Eskola orduz kanpoko hainbat egitasmo ere antolatu ditu, eta baita gazteentzako sentsibilizazio jarduerak ere.

Urte osoko egitasmoen artean, ahozkotasuna lantzeko Bertsozale Elkarteak bideratzen duen *Gu ere bertsotan* eta *Haurrak beti jolasean* ekimenak bultzatu ditu. Azken honi dagokionez, ikasle etorri berriei laguntzeko modulu berria jarri da martxan.

Beste zenbait ekitaldi, aldiz, urtean behin egiten dira. *Ekolingua* saioetan, esaterako, 13-18 urte bitarteko 300 gaztetik gora elkartu dira hizkuntzei buruz hausnartu, esperientziak partekatu eta soziolinguistika kontzeptu batzuk barneratzeko.

Bestalde, 2019ko udan *Altzako Institutuko gazte etorkinen udalekuak* esperientzia pilotua jarri da martxan. 13-16 urte bitarteko 14 gaztek hartu dute parte. Euskararen erabilera bizipen positiboekin lotzea, euskal kultura ekintza ludikoen bitartez ezagutaraztea eta komunikazio gaitasuna indartzea ditu helburu egitasmoak eta emaitza onak lortu ditu..

Gainera, urtero, Euskararen Egunaren karietara euskararen eta euskal kulturaren bueltako zenbait jarduera antolatzen dira ikasleentzat: *Gazteak antzerkira*, eta bertso-saioak, besteak beste.

Euskalduntze-alfabetatzearen arloan, euskara ikasteko dirulaguntzak eskaini eta beste eragile batzuekin batera erabilera sustatzeko ekimenak bultzatzen ditu Euskara Zerbitzuak. Udalak euskara ikasteko bi dirulaguntza deialdi egiten ditu urtero; gehienez kostuaren %55 or-

Ezagutza datuak auzoka

Auzoa	Erdaldunak	Ia euskaldunak	Euskaldunak
Aiete	%29	%20	%51
Altza	%43	%21	%36
Amara Berri	%34	%20	%46
Añorga	%22	%18	%61
Antigua	%29	%18	%53
Ategorrieta-Ulia	%33	%19	%48
Egia	%36	%19	%45
Erdialdea	%33	%19	%48
Gros	%36	%20	%44
Ibaeta	%26	%19	%55
Igeldo	%18	%15	%55
Intxaurrondo	%36	%21	%44
Loiola	%38	%20	%42
Martutene	%35	%18	%47
Mirakruz-Bidebieta	%40	%21	%39
Miramon-Zorroaga	%30	%20	%50
Zubieta	%14	%7	%79

EZAGUTZA DATUAK AUZOZ AUZO

Eustaten 2016ko datuen arabera, Zubieta eta Igeldo dira Donostiako auzorik euskaldunenak. Oraindik bide luzea dute aurretik, aldiz, Altzak eta Mirakruz-Bidebietak.



daintzen du. Bestalde, azterketa egin eta maila gainditzen dutenei, Eusko Jaurlaritzak matrikularen beste zati handi bat itzultzen die.

Horrez gain, langabetuentzako hiru hilabeteko doako euskara-ikastaroak eskaintzen ditu Euskara Zerbitzuak. Ikastaroek aurreikusitako arrakastarik ez izan arren, parte hartzen duten ikasleen %30ak jarraitzen du euskara ikasten urtarriletik aurrera.

Beste eragile batzuekin batera erabilera sustatzeko mintzapraktika ekimenak ere sustatu ditu Euskara Zerbitzuak. Bagera elkartearen Mintzalaguna egitasmoa indartzeko Udalaren diru ekarpena igo da, eta azken bost urteetan bikoiztu egin da parte hartzaileen kopurua; azken ikasturtean 400 mintzalagun aritu dira. 68 donostiarrek parte hartzen duten Mintzanet egitasmoa ere diruz lagundu da. Gazteen artean hizkuntza ohiturak finkatzeko ahalegina egin da Mintzakuadrillak egitasmoari esker. Gainera, Bagerak, udalak, eta euskaltegiek antolatutako elkarlanari esker 43 Mintzodromo antolatu dira, 2.840 parte hartzailerekin.

Erabilera da gakoa

Euskararen Plan Orokorraren helburu estrategiko garrantzitsuena da euskararen erabilerari dagokiona. Izan ere, datuek erakusten dute ezagutzak gora egin duen arren erabilera atzean geratzen ari dela. Administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta aisialdian euskararen erabilera sustatzeko neurriak eta ekimenak bultzatu ditu Euskara Zerbitzuak, ezagutzetik erabiltzera pausoa emateko.

Donostiako Udaleko administrazioan, oro har, azken urteotan langileak euskalduntzeko egin

Hezkuntza datuak

Etapa	Urtea	A	B	D
Lehen matrikulazioa (3 urteko gelan)	2019-2020	%8,7	%4	%87,3
	2014-2015	%10,2	%4,1	%85,3
HH+LH	2019-2020	%8,7	%12,8	%78,5
	2014-2015	%9	%20	%71
DBH	2019-2020	%8,6	%29	%62,4
	2014-2015	%8	%37	%54
BATXILERGOA	2019-2020	%33,2	%7,9	%58,9
	2014-2015	%42	%8	%50
LANBIDE HEZIKETA	2019-2020	%50,8	%20	%29,2
	2014-2015	%71	%1	%28

ERABILERA DATUA

Soziolinguistika Klusterraren neurketen arabera, kale erabileran ez da aurrerapausorik egitea lortu. Haurrek erabiltzen dute gehien, eta adinekoek gutxien.

den lanaren ondorioz, langile askok dute euskaraz lan egiteko gaitasuna. Udalean eta bere erakundeetan lanpostuen %91,99k nahitaezko hizkuntza eskakizuna du, eta datozen urteotan %100ak izatea aurreikusten da. Ezagutzari dagokionez, langileen % 76k egiaztatua du lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Ordezkari politikoen artean ere gero eta gehiago dira euskara dakitenak; 2015-2019 agintaldiko udalbatza osatu dutenen artean, esaterako, %70ak badaki euskaraz.

Erabilera, ordea, azken urteotan ez da ezagutzaren neurri berean hazi. Esaterako, idatzizko barne komunikazioari dagokionez, langileen erdia pasatxok euskaraz edo ele bitan jarduten du, eta lan bileretako dokumentuen %49 euskaraz edo ele bitan aurkezten da.

Udalaren baitan ahoz komunikatzeko euskara erabiltzen du langileriaren %44k. Beste erakundeekin komunikatzeko, aldiz, idatziak elebidunak izaten dira batik bat. Datuen arabera, beste erakundeetara bidalitako idatzien %72 euskaraz edo bi hizkuntzetan bidaltzen da eta

> Bost urteotan, 195 taldetan banatutako 2.044 guraso eta aitona-amona aritu dira propio antolatutako ikastaroetan euskara ikasten.

ahozkoa bada harremana, euskara gaztelaniaren gainetik gailentzen da, %58k erabiltzen baitute.

117 udal langileek osatutako 19 Euskararen erabilera batzorde daude une honetan udale-

LARRAMENDI, S.L.
GASOLINDEGIA
Nafarroa hiribidea, 5 · 20013 DONOSTIA
943-27 92 11 · www.avialarramendi.com
IZOTZA
IKATZA
BUTANOA
PELLETA
JANARIA
EDARIAK
TABAKOA
...

an, eta, horrez gain, ugari dira Euskara Zerbitzuaren laguntza baliatuz euskaraz lan egiten duten langileak. Aipagarria da, gainera, 2018an Euskaraldian 485 izan zirela Euskara Zerbitzuaren bidez izena eman zuten langile eta ordezkariak, eta beste zenbaitek ere beren kasa parte hartu zutela ariketan.

Euskararen ezagutza eta erabilera arlo sozioekonomikoan ere bultzatzeko lehendik abiatutako bidea indartu du Euskara Zerbitzuak. Erosleek euskaraz egin dezaten denda eta tabernetako arduradunek zein langileek duten zeresana kontuan izanik, hainbat eskaintza jarri dira martxan euskararen ezagutzak, eta, beraz, erabilerak gora egin dezan. Merkatari eta ostalarientzat euskara ikastaroak antolatu dira urtean bi alditan, eta merkatarien artean arrakasta izan baldin badute ere (654 merkatari bost urtean), ostalari oso gutxik hartu dute parte.

Ostalaritzako langileak euskalduntzeko zailtasunei aurre egiteko *Erraza da* egitasmoa abiatu du Euskara Zerbitzuak, hiztegitxoen bidez haien lanerako beharrezkoak dituzten hitz eta esamoldeak eskura izan ditzaten ostalariek. 2019 hasieran jarri zen abian lehen fasea, eta arrakasta ikusita abenduan hasi da bigarrena.

Bestalde, hiri osora zabaldu da lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu duten edo arreta euskaraz emateko gai diren establezimenduak identifikatzeko *Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz* egitasmoa. 1.400 bat establezimendu atxiki dira bost urte hauetan.

Hiriko merkataritza gune handietan eragiten


Parketarrak egitasmoan euskaraz egiteko lekua dute haur eta gurasoek.

ere ahalegindu da Euskara Zerbitzua, gune horietako saltokiei ere euskararen normalizaziorako baliabideak eskainiz.

Haur eta gazteen aisialdian ere izan da Euskararen Plan Orokorraren lan-esparruetako bat. Batez ere, eskolaz kanpo baina begiraleen ardurapean egindako jardueretan jarri du arreta Euskara Zerbitzuak, hiriko eragileekin elkarlanean arituz.

Begiraleak eta entrenatzaileak euskaldunak izan daitezen neurriak hartu eta sentsibilizazio ekintzak bideratu ditu Euskara Zerbitzuak, haien ardurapeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituretan eragiteko.


Horrela, Gazteleku, Haurtxoko eta eskoletako begiraleentzako euskararen erabilera sustatzeko estrategiak eskuratzeko prestakuntza saioak ematea izan da lehentasuna. Hiriko udal Haurtxoko eta Gaztelekuetako begiraleek formazioa jaso dute urte hauetan.

Euskararen Donostia
Urrats euskaltegia
www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 / Amezketa, 12



GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA
fmg.es

fmg
Federación Mercantil
Comerciantes de Gipuzkoa


Ekolingua: gazteak euskarari buruz hizketan. Euskararen Egunaren harira, 2018ko abenduan 300 gazte elkartu ziren Tabakaleran, euskarari buruz hitz egiteko eta hizkuntzarekin jolasteko.

Bestalde, hamabi ikastetxetako begirale eta entrenatzaileekin hasi dira lanean eta uste baino hutsune eta behar handiagoak daudela konturatuta formazio saioak eman dituzte ikasturtean zehar Urtxintxa eta Ebete enpresen bitartez.

Horrekin batera, gazteen aisialdian kirolak duen garrantzia ikusita, hiriko kirol elkarteekin lanean entrenamenduak euskaraz egiteko egitasmoak bideratu dira. Hiriko hainbat Kirol Elkarteko zuzendaritzekin bilerak antolatu dira gaiak duen garrantzia mahai gainean jartzeko eta arduradunak sentsibilizatzeko. Entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzeko KEES (Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko) metodologia 17 kirol elkartetan ezarri da.

Bestalde, gune monitorizatuen barruan, Oporretan Euskaraz udaleku irekiak eta Parketarrak egitasmoa antolatzen jarraitu du Euskara Zerbitzuak. 2018an eta 2019an gainera, Euskarabentura espedizioa ere lagundu da.

Gazteen alorrean, eskola eta kirol eremutik kanpo, 12-16 urteko gazteak biltzen diren berezko guneak, batez ere festa garaikoak izanik, *Festan Blai!* ekimena antolatu da Donostia Festak-ekin elkarlanean. Aste Nagusiko Kursaaleko Terrazako DJ emanaldietan, Donostiako Inauterietan (Bretxako aterpean) eta Donostia Cup-ek Kursaaleko Terrazan egiten duen festan, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko ahalegina egin da.

Hizkuntz paisaia elikatzea

Ezagutza eta erabilera sustatzeaz gainera, euskarazko edukiei, kulturari eta hedabideei ere arnasa ematea ezinbestekoa da. Horretan datza hirugarren helburu estrategikoa, euskararen elikadura indartzea.

Hirian dagoen euskarazko kulturgintzari dagokionez, eskaintza handitu eta honekiko eskaera areagotzeko ahalegina egin da. Horretarako, euskarazko sorkuntza bultzatzeko hainbat ekintza burutu ditu bost urteotan Euskara Zerbitzuak. Batetik, euskarazko antzerkigintza sustatzeko Donostia Antzerki Saria eta Poltsiko Antzerki Sorkuntza egitasmoek indarra hartu dute, eta euskarazko antzerki profesionalaren eskaintza egonkortu egin da, urtean batez beste 8.200 ikuslerekin. Bestalde, Oihenart aforismo lehiaketa eta Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketa ere erreferenteak dira beraien esparruetan.



Erabilera datuak auzoka

Auzoak	Bataz beste	Haurrak 2–14	Gazteak 15–24	Helduak 24–65	Adinekoak +65	Gizonezkoak	Emakumezkoa
Aiete-Miramon-Zorroaga	%26,10	%35,50	%7,40	%23,20	%19,70	%26,00	%26,20
Altza	%4,20	%9,90	%4,30	%3,90	%1,10	%3,30	%5,00
Amara Berri	%18,20	%31,50	%14,10	%17,10	%7,10	%20,30	%16,50
Añorga	%46,20	%61,50	%55,50	%36,20	%30,60	%48,90	%42,50
Antigua	%22,30	%30,40	%19,30	%20,60	%13,50	%18,80	%25,40
Ategorrieta-Ulia	%16,10	%33,30	%13,60	%17,00	%4,60	%17,10	%15,00
Egia	%14,20	%29,30	%13,50	%13,70	%2,20	%13,60	%14,70
Erdialdea	%12,10	%23,50	%6,10	%11,20	%8,00	%12,60	%11,80
Gros	%13,20	%27,40	%12,00	%11,80	%7,30	%14,30	%12,40
Ibaeta	%22,80	%36,10	%4,30	%19,60	%14,50	%19,80	%26,00
Igeldo	%75,40	%87,50	%83,30	%76,90	%22,00	%68,30	%82,40
Intxaurrondo	%9,70	%14,10	%5,20	%11,20	%1,40	%9,90	%9,50
Loiola	%11,00	%16,80	%3,80	%9,70	%7,50	%8,60	%13,10
Martutene	%13,90	%22,90	%10,70	%11,70	%0,60	%13,00	%14,80
Bidebieta	%7,90	%13,70	%10,30	%6,30	%2,60	%8,20	%7,50
Parte Zaharra	%12,10	%31,40	%8,30	%10,10	%5,40	%12,50	%11,70
Amara	%17,60	%26,80	%17,00	%16,40	%11,20	%19,40	%16,20
Loiolako Erriberak	%12,70	%19,00	%0,00	%10,40	%6,40	%12,40	%12,90

HEZKUNTZA DATUAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren datuen arabera, D eredua indartzen ari da etengabe. B eredua, aldiz, jaisten ari da, eta A ereduak egonkor dirau.

Halaber, euskarazko kultur eskaintzak gora egin du azken bost urteetan. 2015ean, euskarazko jarduerak 1.200era iristen ez baziren ere, 2018an 1.500etik gora izan dira. Zinemari dagokionez, Euskara Zerbitzuak euskarazko filmak eta euskarazko azpitituluak dituzten filmak sustatzen jarraitu du urte hauetan, batez ere Zinemaldian eta Beldurrezko eta Fantasiazko Zinemaren Astean.


Toponimia eguneratzeko eta osatzeko asmoz, Donostiako toponimia eta kale izenen jarraipena egiteko hitzarmena sinatu zuen Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiarekin. Horri esker, hamar mila erregistro inguruko datu base toponimikoa aztertu eta toponimo bakoitzaren arauzko forma eman zuen Euskaltzaindiak. Geroztik, datu base hori erabiltzen da toponimiari buruzko kontsultak erantzuteko. Horri esker, lau urte hauetan kale izen berriei buruzko 7 txosten eskaera egin zaizkio Euskaltzaindiari, guztira 27 kale izen biltzen zituztenak.

> Euskarazko kultur eskaintzak gora egin du: 2015ean euskarazko jarduerak 1.200era iristen ez baziren ere, 2018an 1.500etik gora izan ziren

Bestalde, 2015ean bukatu zen aurretik abian jarritako Donostiako *Ahotsak.eus* egitasmoa. Azken pasarteak sareratu ziren eta jendearen eskura jarri ziren.

Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruan, Euskara Zerbitzuak 2015ean eta 2016an euskarazko Wikipedia sustatzeko hainbat ekintza aitzindari eta berritzaile jarri zituen martxan Donostia Kulturarekin eta DSS2016 Europako Hiriburutza bulegoarekin elkarlanean. Amarapedia izeneko proiektua jarri zen abian, Wikipediako ezagutza eta amaratarrek auzoari buruz zuten esperientzia uztartu zituena. Egitasmo honen funtsa izan ziren euskal Wikipedia indartzea eta herritarren parte hartzea sustatzea. Olatu Talka jaialdian ere wikilarien komunitatea harremanetan jartzeko balio izan zuten ekimenak antolatu ziren.

Bestalde, 2019an lehendabiziko aldiz, Xare, Euskarazko Kultura Digitalaren I. Jardunaldiak antolatuko ditu abenduaren 17an Udaleko Euskara Zerbitzuak EHUko Informatika fakultatearekin elkarlanean. Euskararen erabilera ingurune digitalean sustatzeko ekintza honetara Batxilergoko lehen mailako eta erdi mailako zikloetako gazteak joango dira. Egun bateko jardunaldian, adituen hitzaldiak izateaz gain, hainbat lantegi praktiko ere izango dira.





«25 urte atzera eginez gero, argi ikusten da euskararen presentzia nabarmen handitu dela hirian»

Jon Insausti Maisterrena | KULTURA ETA EUSKARA ZINEGOTZIA

Euskararen erabilera areagotzea da Donostiako Udalaren erronka. Azken planarekin lorturikoa mantendu, eta aurrera begira bete beharreko erronkak argi ditu Jon Insaustik.

Labur bada ere zein balorazio egiten duzu 2015-2019 urte arteko Euskararen Plan Orokorraz?

Balorazio positiboa da. Euskararen ezagutzari dagokionez, datuak positiboak dira eta euskara dakitenen kopurua etengabe hazten ari da; 2011tik 2016ra bost puntu gora. Gainera, helduen euskalduntzean ere ohiko ikastaroak eta xede berezikoak, oro har erantzun ona izaten ari dira, eta udalak laguntzak ematen jarraitzen du. Bost urtetan 6.000 laguni laguntza eman zaie. Hezkuntzari dagokionez, D ereduaren aldeko apustua egiten ari dira Donostiako gurasoak. Erabilerari dagokionez, kale erabilera datuek, 2016koek, adierazten dute ez dela hazkunderik izan, eta hori bada kezka iturria. Baina esparruka egin diren beste hainbat neurketek erabileran datu hobeak erakutsi dizkigute.

Horri dagokionez, aipatu behar da baita ere Euskaraldiak Donostian oso harrera ona izan duela, eta erabileran arrastoa utzi duela. Euskaraldiaren sorreran Donostia eta bere auzoak aitzindari izan direla ezin ahaztu: Egia, Intxaurrondo, Altza, Añorga...

Kirol alorrean, Donostiako kirol klubekin erabileran urratsak areagotzeko KEES metodologia baliagarria da, eta erreferentea izaten ari da. Saltokietan eta tabernetan ere lehen hitza eta euskararen erabilera areagotzeko, *Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz* egitasmoaz gain, Erraza da egitasmo pilotua sortu da. Aisialdian haurren erabilerarako egitasmo asko ditugu (*Haurrak beti jolasean*, Parketarrak, *Oporretan Euskaraz*), funtzio egokia betetzen dutenak. Hezkuntza alorrean, hezkuntza komunitatearekin ere hainbat egitasmo ditugu martxan elkarlanean, eta kulturgintzan ere euskarazko eskaintzak gora egin du gure hirian. Euskararen Plan Orokorrak jasotzen dituen guztiak behar bezala gauzatzeko eta auzoetako behar bereziei erantzuteko eta auzo mailan ere lanean ari gara euskara batzordeekin, era koordinatuan.

Oro har, planaren balorazioa positiboa da eta elkarlanaren aldeko apustua egin da, gizarteko eragile askorekin elkarlanean aritu baikara eta horrela jarraitzeko asmoa dugu.

Ezarritako helburuak bete dira, eta zeintzuk geratu dira bete gabe?

Orokorrean, bai. Planak zituen lerro nagusiak jorratu dira, eta hasierako helburuak bete egin dira. Hala ere, bost urteko plan bat dela ezin ahaztu, eta denbora gutxi da aldaketa handiak lortzeko.

Une honetan, hurrengo planaren gidalerroak lantzen ari zarete. Zer da aurreratu daitekeena?

Lan-ildo batzuekin jarraitu behar dugu. Ezagutza areagotzen jarraitu behar dugu, laguntzak eskaintzen euskara ikasteko, xede bereziko ikastaroen eskaintza areagotu eta abar. Ulermena unibertsalizatzera iritsi behar dugu ahalik eta azkarren, herritar guztiek euskara ulertzea oso garrantzitsua delako. Horrekin batera, euskara gehiago erabil dadin jarraitu behar dugu lanean. Orain arteko bidean sakontzen jarraitu behar dugu: aisialdian, lan munduan, hezkuntzan eta abar.

Bestalde, etorri berriak euskarara erakartzeko ahalegin berezia egin behar dugu, eta lan-ildo hori garrantzitsua izango da guretzat hurrengo planean. Horrekin batera, gizarteaaren sentsibilizazioa eta motibazioa lantzen egin behar dugu lan, eta Euskaraldiaren hurrengo edizioak garrantzitsuak izango dira urratsak egiten jarraitu eta hizkuntzaren gaia mahai gainean jartzeko.

Aurreko planekin egin bezala, planaren lanketa hiriko eragile, auzoetako batzorde eta norbanako euskaltzaleekin elkarlanean egiten ari zarete?

Euskara zeharkako gai bat dela eta, euskararen normalizazioan agente eta norbanako guztien inplikazioa beharrezkoa dela argi dugu. Euskara Zerbitzuaren lanerako estrategian elkarlana da hitz garrantzitsuenetako bat. Hiriko sektore estrategikoetako eragileekin lanean ari gara (enpresa, erakunde, euskaltegi, ikastetxe, eta abar) eta gizarte eragileekin ere bai (irabazi asmorik gabeko elkarteak, kirol elkarteak, euskalgintza eta abar). Argi dugu iritziak eta diagnostikoak partekatu egin behar direla eta aurrera begira eman beharreko urratsak zeintzuk izango diren erabakitzeko aurreko lan hori guztia ondo egin behar dela.

> «Euskara zeharkako gai bat dela eta, euskararen normalizazioan agente eta norbanako guztien inplikazioa beharrezkoa dela argi dugu»

> «Lan-ildo batzuekin jarraitu behar dugu, laguntzak eskaintzen euskara ikasteko, eta xede bereziko ikastaroen eskaintza areagotu, besteak beste»

> «Hari mutur asko dituen plana da, integrala eta modu sektorialean egituratua dagoena, zeharkako ikuspegia duena eta auzoen ezaugarriak kontuan dituena»

Hurrengo planari begira zer hobetu beharko litzateke udalaren hizkuntz politikari dagokionean?

Hiriaren egoera zein den ondo ezagutzeaz gain, kontuan izan behar ditugu hirian gertatzen ari diren aldaketa orokorrak: soziodemografikoak, sozioekonomikoak, kanpotik datozen etorri berriak. Plan dinamikoak egiten saiatzen gara aldaketa horien aurrean erantzun egoki eta azkarrak emateko. Hala ere, etorkizunean iritsi edo sortuko diren arazoei aurrea hartzea garrantzitsua da, eta horretan asmatu behar dugu.

Iraungitzear den planaren hiru helburu estrategikoak berretsiko dira aurrerantzean ere?

Bai, uste dugu estrategikoak izaten jarraitzen dutela. Era berean, sentsibilizazioa lantzea ezinbestekoa da. Euskara hizkuntza minorizatua dela ezin dugu ahaztu, eta alde horretatik, sentsibilizazioa eta motibazioa lantzea oso garrantzitsua da, baita hizkuntzaren transmisioa ere.

Euskararen erabilera indartzeko zein erronka ditu hiriak aurrera begira?

Euskaraldia izango da tresna garrantzitsuena, baina ez bakarra, noski. Haur eta gazteen alorrean gune monitorizatuak euskalduntzea eta euskararen erabilera handitzen jarraitzea garrantzitsua da. Administrazioak eredu izan behar du eta gizartearen aurretik joan behar du. Bestalde, arnasgune funtzionalak sortzea eta garatzea garrantzitsua da eta horretan Euskaraldiak, entitateen alorra jorratuz lagundu dezake. Esaterako, Ariguneak sortuz.

Kalean euskara entzuten da, entzuten duzu?

Ez nahiko nukeena, baina uste dut aurrera pausoak ematen ari garela Donostian. 25 urte atzera eginez gero, argi ikusten da euskararen presentzia nabarmen handitu dela hirian. Datu objektiboak egon badaude, baina onena jendeari galdetzea da: 20-25 urtez Donostia zapaldu ez duen norbaiti galdetuz gero, erantzun argia emango dizu: orduan baino askoz gehiago entzuten da euskara Donostiako dendetan, eskola atarian, parkeetan, kirol jardueretan, administrazioan...

Helburu orokorraz harago, lehentasunak ere badira: auzoetako plan integralak ugaritzen eta indartzen joatea; aisian, kirolean eta arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzea; eta Euskararen ezagutza areagotzen jarraitzea. Horietan sakontzea da Donostiako Udalaren helburua?

Bai, nagusiki. Egitasmoak sortzen, hobetzen, dihardugu. Auzoetako batzordeak garrantzitsuak dira guretzat, plan orokorraren helburuak eta egitasmoak inplementatzen laguntzen baitute. Hezkuntza eragileekin elkarlanean jarraitu behar dugu euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko. Gauza bera kirol alorrean, hiriko kirol klubekin, estrategikoak dira guretzat, arlo sozioekonomikoak, merkataritak eta ostalariak diren bezalaxe. Hari mutur asko dituen plana da, integrala eta modu sektorialean egituratua dagoena, zeharkako ikuspegia duena eta auzo bakoitzaren ezaugarriak kontuan dituena.



Donostia erreferentea da Euskal Herrian»

Juanjo Ruiz | EMUN-EKO AHOLKULARIA

Donostiako Euskararen Plan Orokorraren iraunaldia amaitzear da, eta datozen lau urteetakoa diseinatzen dabil Juanjo Ruiz (Arrasate, 1973). Emuneko aholkulariak, eskarmentu handia du euskararen normalizaziorako prozesuetan, eta, orain, hiriko hainbat agenterekin ari da lanean, plan berria garatzeko.

Emun-eko aholkularia zara gaur egun, baina euskararekin zerikusia duten beste lan batzuetan ere aritu izan zara, ezta?

Arrasatearra naiz izatez, baina duela hamar bat urte etorri nintzen Donostiara bizitzera. Emunen hasi nintzen lanean 2003. urtean, baina beste hainbat lan egin nituen aurretik, esaterako, euskaltegiko irakasle moduan egin nuen lana. Emunen, euskara formazio atalean hasi nintzen, eta euskara teknikari gisa eman ditut urte asko; azken hiruetan proiektu arduradun gisa nabil. Era berean, Emunekin egokitu nuen *Sortir de l'armari linguistic* liburua euskarara, eta TELP saioak eta bestelako formazio saioak ere eman izan ditut.

Zer nolako lanak egiten dituzue Emunen?

Euskara planak egiteko helburuarekin sortu zen Emun, Arrasateko kooperatibagintzaren barruan. Pixkanaka, zabalduz joan zen, eta enpresa pribatuekin zein erakunde publikoekin lanean hasi zen. Badira urte batzuk gure lan esparruak zabaldu ditugula. Gaur egun, berrikuntza sozialean kokatzen dugu geure burua.

Guretzat, berrikuntza soziala da gizarteak dituen behar batzuei erantzun eta gizarte justuago bat lortzeko modua, eta horretan oinarritzen ditugu eskaintzen ditugun zerbitzuak. Berrikuntza sozialaren barruan, hainbat ildo jorratzen ditugu: euskara, gobernantza irekia, genero berdintasuna, enpresen gizarte erantzukizuna, eta abar.

Donostiako Euskararen Plan Orokorraren iraunaldia 2019an amaituko da. Berrikuspen eta diseinu prozesuan zabiltza orain?

Egia esateko, ez da berrikuspen prozesu bat, Plan Orokorra berriro egiten ari gara. Bukatzear den plana ere Emunek egin zuen, eta plan berria egiteko eskatu digute berriz. Plana da hirira begirakoa, hau da, kanpora begirakoa, udalak badaukalako beste bat administrazioari begirakoa. Asmoa da erabakitzea datozen bost urteetan zer egin nahi dugun eta zein helburu jarriko ditugun, normalizaziorako bidean, gure hirian euskara sustatzeko.

> Auzoetan lanean ari direnak kontuan hartzea eta plan berrian haien ikuspegia txertatzea oso garrantzitsua da»

Hori egiteko metodologia zehatz bat proposatu genion Euskara Zerbitzuari, eta irailetik hona horretan gabiltza. Metodologia horren barruan, hainbat teknika erabili ditugu lanketa egiteko. Nagusiki, udal teknikariekin ari gara gaia lantzen. Horiekin sei bat bilera planifikatu ditugu eta horietan egin dugu planaren lanketa nagusia: lehenengoa, aurreko planaren ebaluazioa egiteko erabili genuen, eta, gainerakoak datozen bost urteei begira zer egingo dugun ikusteko. Begiratzen ari gara aurrekotik zer komeni den mantentzea, eta zeintzuk diren txertatu behar diren gauza berriak; etorkizuneko helburuak eta ekintzak zehazten gabiltza.

Beste alde batetik, bi elkarrizketa egin ditugu, informazioa jasotzeko helburuarekin. Badaude gai batzuk, euskara sustatzeko planetan agertzen direnak Euskal Herria osoan nahiko antzekoak direnak. Hala ere, guri kezka sortu digute Donostiak berak dituen ezaugarri batzuek, eta hirian egon daitezkeen joerek. Joera horiek ez dute zerikusi zuzena euskararekin, baina eragina dute hizkuntzaren erabileran. Elkarrizketa horietako bat Donostiako Plan Estrategikoaren arduradunarekin egin genuen, joera horien berri izan, eta euskararekin lotura egin ahal izateko. Beste elkarrizketa, Turismo Saileko arduradunarekin egin genuen, turismoak hirian duen eragina ikusita, garrantzitsua iruditzen zitzaigulako, euskararen gaia nola jorratzen duten ikustea.

Gainera, hiru lan-mahai sortu ditugu, eta bakoitzarekin bilera bat egin dugu lanketa egin eta ekarpenak jasotzeko. Horietako bi mahai eratuta zeuden dagoeneko: euskara eta kirola lantzen duena, eta ostalaritza eta merkataritza lan-mahaia. Hirugarren bat sortu dugu, kultur aniztasunaren mahaia, kontuan hartu beharreko gaia iruditzen zaigulako.

Mahai horiek osatzen dituzte gai bakoitzeko udal teknikariek eta zerikusia duten elkarte zein eragileek. Era berean, Euskararen Kontseilu Sektorialarekin bi bilera planifikatu ditugu, aurrekoaren balorazioa egin eta plan berriarekiko proposamenak egiteko.

Azkenik, auzoetako euskara batzordeak ere sartu ditugu prozesuan. Horien dinamizazioa Bagera elkarteak kudeatzen du, eta haien bitartez ari gara euskara batzordeekin lan-mahaiekin egiten ari garen lanketa antzekoa egiten. Auzoetan eragiten ari diren taldeen kontuan hartzea oso garrantzitsua da guretzat, baita Plan Orokor berrian guztien ikuspegia bermatzea ere.

Zeintzuk dira horrelako plan bat egiteko kontuan hartzen diren irizpideak?

Erreferentzia gisa daukagu Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko daukan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Horrek markatzen ditu irizpide orokor batzuk, eta horretan hainbat esparru daude zehaztuta: familia transmisioa, alfabetatzea, hedabideak, sentsibilizazioa, eta abar. Udalak irizpide horien araberako antolaketa egiten du, baina, hala ere, hori marko orokorra izan arren, badaude ezaugarri eta gai zehatz batzuk landu nahi ditugunak, eta ez dira ESEPen sartzen. Guk horiek zeharka sartuko ditugu planean, esaterako, lehen aipatu dudan kultur aniztasuna. Hau da, saiatzen ari gara euskararen normalizazioan zeharka eragiten duten erronkak eta zailtasunak planean txertatzen.

'Sortir de l'armari linguistic' liburuan oinarritutako 'Irten hizkuntzaren armairutik' argitaratu zenuten 2015ean. Zertan datza liburua?

Herrialde Katalanetako bi psikologoren lana da liburu hori, Gemma Sangines eta Ferran Suayrena, hain zuzen. Valentziakoak dira, eta euren inguruko errealitate linguistikoa aztertu zuten haien esparruaren ikuspegitik, psikologiatik. Era berean, TELP tailerrak sortu zituzten, eta hori izan zen liburuaren abiapuntua. Guk TELP metodologia horren berri izan genuen 2007an, eta haiekin kontaktuan jarri ondoren, Euskal Herriko egoeretara moldatu genituen. Emunek ordutik TELP tailer ugari eman ditu. Horrela sortu genuen liburuaren gure bertsioa, Imanol Larreak itzulita.

Liburuaren helburua da ikuspegi psikologikotik, teknikak garatzea norberak bere hizkuntza gutxitua gehiago erabiltzeko. Ikusi zuten

> Saiatzen ari gara euskararen normalizazioan zeharka eragiten duten erronkak eta zailtasunak planean txertatzen»

badaudela faktore psikologiko batzuk eragiten dutenak hizkuntzaren erabileran, eta, askotan, sumisio portaerak eragiten dituzte. Psikologiaren esparruan horrela deitzen zaie, baina, hobeto ulertzeko, portaera lotsatiak izango lirateke. Hortaz, haien asmoa izan zen psikologiak ematen dituen ezagutzak baliatzea norbanakoen hizkuntza portaeran eragiteko, eta bakoitzaren hizkuntza gutxitua gehiago erabiltzeko.

Euskara Planak garatzerako orduan, beste hizkuntza gutxituen politikak oinarri izaten dituzue, esaterako, Herrialde Katalanetakoak?

Ez, desberdina da. Egia da Kataluniako egoera oso modu positiboan ikusten dugula, baina desberdintasun handiak daude. Katalunian ezagutza hemen baino askoz zabalduago dago, adibidez. Era berean, hizkuntzarekiko beste kezka bat dute, eta gobernutik beste baliabide batzuk eskaintzen dira. Hemen ez gara hain ausartak. Han egiten dituzten gauza batzuei bai erreparatzen diegu, baina ez daukagu eredu aplikagarri moduan. Bakoitzak bere erritmoak ditu, eta horren arabera egiten ditugu lanketak.

Egia esateko, ez daukagu erreferente zehatzik, baina, adibidez, Donostia bera bada Euskal Herrian erreferente bat. Bere ahulguneak eta zailtasunak ditu, noski, baina hirietan euskaldunena da. Nahiko nuke datozen lau urteetara begira jarrita, plan berriarekin *Euskararen hiria*-ren ideia berreskuratzea, eta euskal hirien artean erreferente bat bilakatzea. Horretan ari gara.



ZENBATEK ULERTZEN DU EUSKARA DONOSTIAN?

Ulermenaren mapak erakusten digu uste baino askoz jende gehiagorekin egin dezakegula euskaraz. Gainera, 0 eta 25 urte bitarteko haur eta gazteen datuak kontuan hartuta, biharko aurreikuspenak baikorrak dira, eta Donostian euskaraz egiteko aukera handiagoa izango da.



DONOSTIAN USTE BAINO JENDE GEHIAGOREKIN EGIN DEZAKEGU EUSKARAZ

Zenbat jendek ulertzen du euskara Donostian?

2016ko erroldaren arabera, Donostiak 2 urtetik gorako 176.637 biztanle ditu. Horien artean %46 euskalduna da (81.274 lagun) eta %19,71 (34.825 lagun) ia euskalduna. Hau da, donostiarren ia bi herenek euskara ulertzen dute. 2-19 urte bitarteko haur eta gazteen artean, berriz, 10etik 9k euskara ezagutzen du (Eustat-Euskal Estatistika Erakundea).

Zenbat haur eta gaztek (0-25 urte) ulertzen du euskara Donostian?

Donostiako auzo guztietan ulermen maila oso handia da:
- %80 inguru: Parte Zaharra, Erdialdea, Amara, Loiola-Txomiñenea eta Grosen.
-%85-90 artean: Antigua, Egia, Martutene, Amara Berri, Altza, Intxaurrondo, Bidebieta eta Ulian.
- %90etik gora Igeldo, Ibaeta, Añorga eta Aieten.Gazteen artean ulermen maila la erabatekoa da.

Eta zenbat erabiltzen da euskara?

2016an Donostiako kaleetan egindako hizkuntzen erabileraren neurketa orokorrak (Soziolinguistika Klusterra) ondorioztatu zuen euskararen kale erabilera %15,2koa dela, haurren artean %26,9 eta gazteen artean %13koa.

Euskaraz egiteko aukera handiagoa dago herritar guztien artean, eta are handiagoa gazteen artean.

Datu hauek erakusten dute Donostian euskaraz egiteko aukera ugari dagoela. Ulermenaren mapak erakusten digu uste baino askoz jende gehiagorekin egin dezakegula euskaraz. Euskaraz dakigun guztiok, ulermena eta komunikagarritasuna bermatuta dagoen guztietan, euskaraz egingo bagenu, erabat aldatuko litzateke erabileraren egoera.



Euskarari arnasa emateko hamaika egitasmo

Euskararen Plan Orokorraren baitako helburuak betetzeko eta hiriko eragileek identifikatutako beharrei erantzuteko hamaika egitasmo bultzatzen ditu Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Azken bost urteotan hamaika egitasmoren bultzatzailea izan da Euskara Zerbitzua, hiriko eragileekin elkarlanean. Lehendik martxan zeuden zenbait egitasmo zabaldu eta indartu egin dira 2015-2019 epealdian, eta berriak ere jarri dira martxan, aurrera begira.

Euskararen normalizaziorako bidean, esparru desberdinetan eragiteko balio dute egitasmo hauek, herritarren beharrei eta, batez ere, euskararen egoerari erantzunez. Egitasmo batzuk besteak baino ikusgarriagoak edo ezagunagoak dira, Euskaraldia, kasu, baina badira egunerokoan txertatuta eta gutxikako lanaren bidez eragiten dutenak ere, Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz, eta Parketarrak gisakoak. Izan alfabetatzean laguntzeko edo ezagutza dagoen eremuetan erabilera sustatzeko, askotarikoak dira egitasmoak.

Donostiako Euskararen Plan Orokorraren baitan kokatzen diren bost egitasmo ekarri ditugu hona, erakusgarri. Haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko kirola egiterakoan euskara gehiago erabiltzeko garatutako KEES metodologia hiri osoko klubetan erabiltzen dute dagoeneko. Aurten Altzako institutuko ikasle batzuek udako errefortzu-saioetan parte hartu dute, hizkuntz gaitasunak jolasaren bidez mantentzeko. laz egin zen Euskaraldia, eta datorren urtera begira ere lanean hasi dira dagoeneko zenbait auzotan, norbanakoen eta erakundeen hizkuntz ohiturak aldatzeko ariketa prestatuz. Arlo sozioekonomikoan, aldiz, bezeroek zein saltzaileek euskaraz egin dezaten laguntzeko *Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz* mapa eta ostalariei euskaraz artatzea ahalbidetzeko *Erraza da* hiztegitxoa garatu dira.



Jende ugari elkartu zen San Telmo Museoko Mintzodromoan Euskararen Egunaren harira.



Kirol entrenamendu eta ekitaldietan euskaraz aritzea errazten du KEES metodologiak.

KIROL GUNEETAN EUSKARAZ NATURALTASUNEZ

Donostiako 15 urte azpiko haurren gehiengoa da euskalduna, baina erabilera, aldiz, oso baxua da adin-tarte horretan. Egoera hori aldatzen saiatu eta haur eta gazteen aisialdian euskararen erabilera areagotzeko martxan jarritako egitasmoetako bat da Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko (KEES) metodologia.

Kirola izanik haur eta gazteen eskola orduz kanpoko jarduera nagusienetakoa,une horietan ere modu naturalean euskaraz aritzeko gune bat eduki dezaten balio du metodologia honek. Hiriko kirol elkarteekin elkarlanean, entrenamenduetako hizkuntza euskara izan dadin du helburu.

Entrenatzailea da KEES metodologiaren oinarria, eta jokalariek ez dute egitasmoaren berri izaten. Entrenatzailea eredu den heinean, euskara ulertzeko arazorik ez duten haur eta gazte guztiekin euskaraz egitea da bere ardura, saioak euskaraz eginez eta hizkuntz ohiturak naturalki aldatuz. Lan hori aurrera eramateko baliabideak eta aholkularitza ditu eskura entrenatzaileak.

Entrenamenduetako hizkuntz ohiturak behatu eta diagnostiko bat egin ondoren ohitura horiek aldatu edo mantentzeko lana egin behar du entrenatzaileak. Horretarako, hiru puntu nagusi dituen taula bat bete behar du: lehen puntuan, entrenatzaileak jokalariei nola hitz egiten dien jarri behar du; bigarrenean, jokalariak entrenatzaileari zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkion; eta, hirugarren taulan, jokalariek elkarren artean zein hizkuntzetan hitz egiten duten.

2014-2015 denboraldian hasi zen Añorga Kirol eta Kultur Elkartea KEES metodologia erabiltzen, proba pilotu gisa. Programa pilotua bi urtez garatu ostean hiriko beste kirol elkarteak ere batu zaizkio programari, metodologia euren egunerokoan txertatuz. Azken ikasturtean 17 klubetako 116 entrenatzailek eta 1353 haurrek hartu dute parte, mota guztietako kirol taldeetan: futbola, saskibaloia, atletismoa, eskubaloia, belar-hockeya, xakea, judoa, surfa eta arrauna.

> Azken ikasturtean zehar hiri osoko 17 klubetako 116 entrenatzailek eta 1.353 haurrek hartu dute parte Kirol Entrenamenduetan Euskara sustatzeko egitasmoan

Jasotako datuen arabera, oro har, KEES metodologiaren egitasmoan parte hartzen ari diren haur eta gaztetxoen %77ak euskaraz egiten dio entrenatzaileari. Jokalarien artean, %55ak beti edo askotan egiten du euskaraz taldekideekin, %27ak batzuetan eta, %17k, aldiz, inoiz ez.



IPURU S.L.
ERAIKUNTZAK

Mundaiz bidea, 10 - 2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21 - 20012 DONOSTIA
www.ipuru.com

ERAIKI DEZAGUN EUSKARA





Udan zehar metodo ludikoen bidez garatu dute hizkuntz gaitasuna Altzako ikasle batzuek.

UDAN ZEHAR ONDO PASATUZ IKASTEKO

2019ko udan zehar Altza BHI institutuko DBHko 14 ikaslek euskara gaitasunak modu ludikoan indartzeko programa pilotu batean parte hartu dute. Euskara Zerbitzuaren eta Ebete enpresaren laguntzarekin jarri dute martxan egitasmoa.

Altzako institutuko zuzendaria eta arduradunak kezkatuta zeuden. Izan ere, haien ikasleen gehiengoak euskararekin duen harreman bakarra ikastetxearen baitakoa da, eta uda sasoia eten handia izaten da horri dagokionez. Ondorioz, euskara gaitasun urriak izan arren gaitasun batzuk barneratuta dituzten ikasleek ikasturtean zehar garatutakoa galtzeko arriskua dute udan. Horren aurrean, oporraldian ere ikasitakoa lantzen jarraitzeko udaleku ireki batzuen gisakoak antolatzeko proposamena egin zioten Euskara Zerbitzuari.

Errefortzu saio horiek gaztetxoen erabilera maila mantentzeaz gainera ikasleen euskararekiko jarrera hobetu eta harremana indartu eta aberastea izan dute helburu. Euskara ikastetxeko girotik at erabiltzea eta lotura hori haustea garrantzizkotzat jo dute egitasmoaren antolatzaileek, hau da, euskara eskolatik kanpo eta aisialdirako eta kulturarako ere baliagarria dela erakustea.

Izan ere, errefortzu saio soil izan beharrean udaleku irekien edo eskola orduz kanpoko jardueren izaera informal eta ludikoa mantentzen ahalegindu dira hezitzaileak, gaztetxoekin hizkuntza gaitasunak lantzerako orduan. Ondorioz, euskararen erabilera gustuko ekintzekin eta bizipen positiboekin lotu dituzte ikasleek. Gainera, sentsibilizazio jarduerak egin dituzte, eleaniztasunaren inguruko hausnarketak eta euskararekiko harremana indartzeko mezuak eskainiz.

Oro har, lortu nahi ziren helburuak bete direla esan dute antolatzaileek, eta partaideen euskara maila nahiko baxua izanik ere gaztetxoek hizkuntzaren erabilera bizipen positiboekin uztartzea lortu dela. Parte hartu duten gaztetxoetako batzuek euskara mailan aurrerapen handirik egin ez badute ere euskararekiko jarreretan eta erabiltzeko ahaleginean aldea sumatu dela nabarmendu dute.

> Euskararen erabilera gustuko ekintzekin eta bizipen positiboekin lotu dute ikasleek udan zehar egindako saioetan

Irakaskuntzarako eta aisialdirako garatutako tresnak erabili dituzte hezitzaileek, gaztetxoen gaitasunak oinarri hartuta ahalik eta euskara gehien, ahalik eta erosoen eta gustuen erabiltzeko helburuarekin. Jarduera, dinamika eta irteera desberdinen bidez eta lehendik pentsatutako tresnak egokituz ahalegina egin dute ikasle guztiak eroso senti zitezen.

Gaztetxoek euskararekiko erakutsitako jarrera aldaketaz eta erabileran egindako aurrerapenez gain euskal kulturaren erreferentzietara hurbildu izana ere azpimarratu dute antolatzaileek. Izan ere, batez ere musikaren bidetik, euskarazko erreferenteak eta Donostiako kultur eskaintza ezagutu ahal izan dute ikasleek.

Bi aldi izan dituzte errefortzu saioek: uztailaren 1etik 19ra Altzako Gaztelekuan egon dira, lehenik, eta irailaren 2tik 6ra, aldiz, institutuan bertan, eskolara itzuli aurretik prestatzeko. Partaidetza maila ere esanguratsua izan da. Izena 14 ikaslek eman zuten eta uztailean zeharreko saioetan, bataz beste, 10 gaztek hartu dute parte egunean.

Proba bat izanik talde txikiak parte hartu du lehen urte honetan, eta gehien behar zuten ikasleak egon dira saioetan. Hala ere, aurrera begira egitasmoa errepikatu eta zabaltzeko beharra eta aukera dagoela ikusi dute, eta baita ikasturtean zehar eskolaz kanpoko jarduera gisa ere antolatzekoa.





EUSKARALDIA, NORBANAKOTIK ERAKUNDEETARA

Euskararen normalizazioari dagokionez, azken urteetan euskararen erabileraren inguruan egin den ariketarik jendetsuena eta zabalena egin zen 2018an: Euskaraldia. Donostian, Bagera Donostiako Euskaltzaleen elkartea eta Udaleko Euskara Zerbitzua izan ziren Euskaraldiaren bultzatzaile nagusiak, Euskaltzaleen Topagunearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Azken ikerketetako datuek erakusten dutenez, euskararen ezagutza handitu arren erabilera ez da neurri berean hazi. Egoera hori aldatzen hasteko eta euskal hiztunen eta haien ingurukoen hizkuntza ohituretan eragiteko helburuz sortu zen egitasmoa. Euskaraldiaren hamaika egunetan ahal zuten guztietan euskaraz egiteko konpromisoa hartzeko aukera izan zuten 16 urtetik gorako herritarrek, *ahobizi* eta *belarriprest* rolen bidez.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen «Euskaraldia, 11 egun euskaraz Donostian» ekimena. Donostian, orotara 17.659 donostiarrek parte hartu zuten Euskaraldian. Horietatik 12.849 izan ziren *ahobizi* eta 4.800 *belarriprest*. Parte hartzaileen bi heren emakumezkoak izan ziren.

Iazko Euskaraldiaren arrakastaren ondotik, Euskaraldia bigarren aldiz egingo da 2020ko udazkenean. Aldi honetan, ordea, hizkuntza ohiturak aldatzeko norbanakoak konpromisoak hartzera animatzeaz gain, erakunde publiko eta pribatuen parte hartze aktiboa lortu nahi da, ariguneen bidez. Euskara erabiltzeko entitateak izango dira ariguneak, eta bertako kideek euskara ulertzeaz gain *belarriprest* edo *ahobizi* rolak hautatuko dituzte.



Ahobizi eta *belarriprest* rolek ariguneen babesa izango dute datorren urtean.

Bi motatakoak izan daitezke ariguneak: barne *ariguneak* eta kanpo ariguneak. Lehenengoak talde itxietan sortuko dira (elkarte gastronomiko bateko junta, esaterako), eta bi baldintza bete beharko dituzte: kide guztiek euskara ulertzea eta horietako %80 arigunearen sorrerarekin ados egotea. Bigarrenak, berriz, herritarrei zerbitzua eskaintzen dieten erakundeentzat daude pentsatuak, eta horietan euskaraz hitz egiteko aukera bermatua egongo da.

Izan *ahobizi* edo *belarriprest* modura, kanpo arigune horren parte diren kideek era kolektiboan egingo dute Euskaraldiaren ariketa.

Datorren urteko egitasmoaren bideragarritasuna neurtzeko asmoz frogaldia egin nahi izan dute Euskal Herriko hiru gunetan: Arabako lautadan, Bizkaiko enpresa batean eta Donostiako Intxaurrondo auzoan.

Norbanakoen konpromisotik harago, erakundeen parte hartze aktiboa lortu nahi du 2020ko Euskaraldiak

Azken urteotan, Intxaurrondoko bizilagunen arteko hizkuntza praktika berriak bultzatzeko hainbat egitasmo landu izan dituzte auzoan: 2017ko «20 orduko eta 20 eguneko erronka» eta 2018ko Euskaraldia.

Horietan izandako arrakastari jarraipena emanez eta datorren urteko ariketaren aurrekari bezala, 11 eguneko frogaldia egin dute Intxaurrondon, 2019ko azaroaren 22tik abenduaren 3ra. Antolakuntza lanetan elkarlanean ari dira Bagera Donostiako Euskaltzaleen elkartea, Plazara Goaz Intxaurrondoko Euskara Batzordea eta Euskara Zerbitzua.

Horrela, Intxaurrondoko entitateei euren barruan ariguneak identifikatu eta sortzea eskatu zaie. Ariguneak euskaraz lasai eta modu seguruan aritzeko guneak dira, entitate baten barruan dagoeneko modu naturalean eratuta dauden taldeak edo espazioak izanik.

Aurtengo ariketan, orotara, 500 pertsona aritu dira 65 arigunetan: IZBE auzo elkartea, Jose Ignacio Bengoetxea harategia, Intxaurrondoko Gizarte Ekintzako zerbitzugunea, Intxaurrondo kultur etxea, Larrotxene kultur etxea, Mons Udal kiroldegia, Haizalde elkarte gastronomikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Lauaizeta ikastetxea, Biharko Gipuzkoa zaharren egoitza, Intxaurrondo Udal Kiroldegiko igerilekua, Intxaurrondo Ikastola, Zulo Zahar elkartea eta Intxaurrondo Hegoa IP.



Kursaalean ere ikusi ahal izan zen 2018ko Euskaraldiaren irudia.

Txaran, esaterako, erakundeko sail desberdinetako ordezkariek osatu dute talde sustatzailea, eta langileen %85ak eman du izena, guztira, 155 langilek.

Datorren urteko ariketan norbanakotik erakundeetara zabalduko da Euskaraldiaren ariketa, *ahobizi* eta *belarriprestei* ariguneen babesa eskainiz eta euskararen erabileran eragiteko ariketari beste dimentsio bat emanez.





BEZEROAK EUSKARAZ ARTATZEN DITUZTEN SALTOKIEN MAPA

Euskararen erabilera eremu sozioekonomikoan, merkataritzan eta ostalaritzan, sustatzeko egitasmo ugari sustatu ditu Euskara Zerbitzuak. Horien artean dago, bezeroak euskaraz artatzeko gaitasuna duten establezimenduak identifikatzen dituen *Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz* egitasmoa.

2014an jarri zuten martxan programa, proba moduan, Parte Zaharrean eta Intxaurrondon, eta urtez urte hiri guztira zabaltzen joan da. Sektoreko eragileekin batera garatu du egitasmoa Euskara Zerbitzuak, Donostiako Sustapena, San Sebastian Shops, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, Auzoa, Zaharrean eta Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin.

Egitasmoaren bitartez arreta euskaraz emateko gai diren eta lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu duten establezimenduak identifikatzen dira, eta herritarrei euskaraz egiteko erraztasunak eman.

Egitasmoaren bitartez eskuratutako datuek erakusten dutenez, Donostiako saltoki, taberna eta jatetxeen %49ko langileen erdiek dute, gutxienez, euskaraz egiteko gaitasuna, eta %27ak hartu du arreta euskaraz emateko konpromisoa.

Euskara Zerbitzuak nabarmendu duenez, Donostiako merkataritzan eta ostalaritzan jendaurrean lan egiten duten 10.975 pertsonen erdia euskalduna da edo euskara ulertzeko gaitasuna du. Langileen erdiak euskaraz dakiten taberna eta saltokiak zerrendatzen dira, eta bertan euskaraz egin daitekeela ziurtatzen da.

Lehen fasean 4.576 saltoki eta taberna bisitatu zituen Euskara Zerbitzuak, eta horietatik 1.247k egin zuten bat egitasmoarekin. 1.932k ez zituzten baldintzak betetzen, eta beste 652k baldintzak bete arren ez zuten egitasmoarekin bat egin. Bost urteren buruan, guztira 1.460 establezimendu atxikitu zaizkio egitasmoari.

> Donostiako saltoki, taberna eta jatetxeen erdietako langileen erdiek dute, gutxienez, euskaraz egiteko gaitasuna

Egitasmoan parte hartzen duten establezmienduen gehiengoak jarraitzen du baldintzak betetzen, eta horiek guztiek erakutsi dute parte hartzen jarraitzeko asmoa. Izan ere, bezeroek egitasmoa ondo hartu dutela sumatu dute merkatariek eta ostalariek.

2018an egitasmoak etenaldi bat izan zuen, Euskaraldiari lekua egiteko. *Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz* ekimenaren parte ziren establezimenduen gehiengoak egin zuen bat Euskaraldiarekin. Era berean, 1.450 langilek hartu zuten parte: 936 *ahobizik* eta 514 *belarriprestek*.

Egitasmoan parte hartzeko baldintzak bete arren bat egin ez dutenak barne hartuta hiriko ia 2.000 establezimendutan egin dezakete bezeroek euskaraz. Orotara, Donostiako establezimenduen %40 inguru osatzen dute. Egitasmoan parte hartu duten establezimenduen mapa eskuragarri dago *Donostiaeuskaraz.eus* webgunean. Bertan kontsulta daiteke zein taberna edo dendetan egin dezakeen euskaraz.



Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egitasmoak garatzen ditu Euskara Zerbitzuak.

LEHEN HITZA EUSKARAZ

Donostiako ostalaritzan euskararen erabilera areagotzeko martxan jarritako egitasmoetako beste bat da *Erraza da*.

Arlo sozioekonomikoan ezagutza eta erabilera sustatzeko merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten dutenentzat euskara ikastaroak eskaintzen ditu Euskara Zerbitzuak, eta ikastaroek merkatarien artean arrakasta baldin badu ere, ostalarien artean emaitza kaxkarragoak ditu. Ostalaritzako langile asko ez dira euskaldunak, eta lanpostuen baldintzak direla-eta zailagoa dute euskalduntzeko urratsak egitea.

Egoerari konponbide bat emateko garatu du Euskara Zerbitzuak *Erraza da* egitasmo pilotua. Ostalaritzako langileak modu errazean euskarara hurbildu eta bezeroei euskaraz aritzeko aukera bat eskaintzen die egitasmoak. Parte hartzen duten langileek hiru hilabeteren buruan haien lanean baliagarriak izango zaizkien 200 hitz edo esamolde ikastea da egitasmoaren muina. Esamolde horiek ikasita, langileek bezeroei lehen hitza euskaraz egitea, eskariak ulertzea eta elkarrizketa sinple baten parte izateko gai izatea da helburua, establezimendu horietan euskaraz hitz egitea errazteko.

> Ostalaritzako langileak euskarara modu errazean hurbiltzeko aukera eskaintzen du *Erraza da* egitasmoak

Oraingoz, Parte Zaharreko ostalarien artean jarri dute martxan egitasmoa. 2019 hasieran banatu zuten hitz eta esamolde laburrak dakartzan lehen hiztegitxoa, eta lehen faseak izandako arakastaren ondotik abenduan eman zaio hasiera bigarren faseari, lehenari jarraipena ematen dion beste hitzegi batekin.

Parte Zaharreko 70 taberna eta jatetxetako 209 langilek eman zuten izena egitasmoaren lehen fasean. Balorazioa egin duten parte hartzaileen artean, gehiengoak adierazi du hiztegian jasotako esamoldeak ikastea erraza izan dela. Euskara ikasten jarraitzeko nahia eta beste hiztegi bat jasotzeko prestutasuna ere erakutsi dute. Halaber, egitasmoari esker lehen hitza euskaraz egiten duela ere adierazi du erdiak baino gehiagok.



Almortza, 2
20018 Donostia
Gipuzkoa
943-31 60 40

GIPUZKOA
HOSTELERÍA - OSTALARITZA



Euskara, auzotik auzora

Euskararen normalizaziorako bidean, auzoetako euskara batzordeek paper garrantzitsua jokatzen dute. Auzo bakoitzean dauden premiei eta beharrei hobeto erantzuteko sortu ziren, eta horien helburua da batzordea euskara auzoan bultzatzeko erreferente nagusia izatea. Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuak sustatzen eta diruz laguntzen dituen batzorde hauen dinamizazioa eta koordinazioa Bagera Elkartearen esku dago.



OLAIA MURGIONDO

Aieteko Euskara Batzordea

«Hainbat usadio berreskuratu ditugu, eta euskaraz aritzeko eta euskal hiztunak elkartzeko elkarguneak sortu ditugu»

Zein lorpen egin dituzue auzoan?
Auzoko elkarteen arteko lotura, eta auzoan egiten diren jardueren sustatzaile garrantzitsu bat izatea. Alde batetik, auzoan galduta zeuden hainbat usadio eta ohitura berreskuratu ditugu, eta euskaraz aritzeko eta euskal hiztunak elkartzeko elkarguneak sortu ditugu.

Eta zeintzuk dira dituzuen ahulguneak?
Alde batetik, lokal baten falta; horrek eguraldiaren aurreikuspenen menpe uzten gaitu, plazetan edo kanpoan egiten diren ekintzetara begira. Lokal batek, jarduera gehiago egiteko aukera emango liguke, eta auzoari begira elkarte gisa gune bat izateak, beste ikusgarritasun bat emango liguke. Gainera, lortzen joan garen materialari leku duin bat emango genioke, trastelekuetan sakabanatua izan beharrean. Beste alde batetik, jarduerak antolatu eta aurrera eramaterakoan jendea falta zaigu. Auzo zaila ere bada: oso zabala da, erdigunerik gabea...

Zertan dabil orain euskara batzordea?
Alde batetik, urte hauetan egindako auzoko lorpenak finkatzen, auzoko denentzat erreferentzia izan daitezen. Bestalde, proiektu berrien hedapenari begira boluntario eta kide berrien bila gabiltza. Era berean, saltoki batzuekin ere elkarlana bilatzen ari gara.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?
Euskaldunen elkargune horiek modu naturalean sortzea nahi dugu. Era berean, auzoan gero eta euskara gehiago entzutea bilatzen dugu. Atzo baino urrats bat gehiago egin nahiko genuke, eta bihar baino urrats bat gutxiago.



JUAN MARTIN URKOLA

Berritsu - Amara Berriko Batzordea

«Berritsun badira gazteen elkarteak, baina gehiagorengana iritsi nahi dugu. Hori da gure erronketako bat»

Aurrerapausoak eman dituzue?
Urtean zehar antolatzen ditugun ekitaldien bitartez, uste dut euskarak auzoan presentzia handiagoa duela, gehiago entzuten dela, eta hori guretzat lorpen handia da. Baina, orraindik, emaitza hobeak lortu behar ditugu. Bestalde, euskara batzordean parte hartzen dugunok elkar ezagutu eta proiektu komunak antolatzeko bideak zabaldu ditugu. Azken finean, indarrak metatu eta auzotar gehiagorengana iristeko aukera izan dugu.

Zeintzuk dira dituzuen zailtasunak?
Berritsuk ateak zabalik ditu, eta barruan zazpi eragile gara; baina, nahi dugu kopuru hori handitu, eta hor ikusten ditut zailtasunak. Hala ere, ez dugu etsiko eta jarraituko dugu auzoko eragile gehiago erakartzen. Bestalde, komunikazioa hobetu nahi dugu. Izan ere, gauza asko antolatzen ditugu urtean zehar, baina batzuetan auzotarrak ez dira jabetzen. Gazteengana iristea ere erronka bat da; Berritsun badira gazteen elkarteak, baina gehiagorengana iritsi nahi genuke.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?
Auzoko komertzioetara gehiago eta hobeto iristea. Lehen ere saiakerak egin ditugu, baina emaitza hobeak lortu behar ditugu. Auzoko Osasun Zentroko arduradunekin ere harremanetan jarri gara, hango profesionalen eta auzotarren artean euskararen erabilera hobetzeko. Gauza txiki baina eraginkorrak egin nahi ditugu: lehen hitza euskaraz, auzotar euskaldunek profesional euskaldunak aukeratzeko kanpaina egin, medikuen informazio oharrak landu, eta abar.



ALAIN URIZAR

Egiako Euskara Batzordea

«Egia Eskubaloia taldean euskararen aldeko sentsibilizazio eta konpromiso kanpaina bat lantzeko asmoa dugu»

Zer lortu duzue auzoan?
Urteetan, gure gorabeherekin, baina etenik gabe lan egin dugu. Horren ondorioz, lorpenak egin ditugu hainbat esparrutan, esaterako, egun zehatzen antolaketa eta auzo mobilizazioak. Era berean, auzoan hizkuntz proiektuak mamitu ditugu, eta Euskal Herrian zabalduak izan diren egitasmoen aitzindariak izan gara, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko plana eta Euskaraldia, adibidez. Bestalde, uste dugu, auzoan ditugun eragileentzako (merkatariak, aisialdi eta hezkuntza taldea, kultur eragileak), euskararen normalizazioaren aldeko borrokan erreferentea dela euskara batzordea.

Zertan zabiltzate orain?
Orain urte batzuk euskararen osasuna neurtzeko oso baliagarria izan zen baliabide bat diseinatzen eta gauzatzen hasi ginen: auzoko hizkuntza proiektua. Bide hori jarraituz, Egia Eskubaloia taldearekin harremanetan jarri gara, auzoan oso garrantzitsua delako eta gazte asko biltzen dituelako. Erakunde horretan euskararen aldeko sentsibilizazio eta konpromiso kanpaina bat lantzeko asmoa dugu, gazteak gaurko eta etorkizuneko euskaltzale eta hiztun gisa irudikatu nahi ditugulako. Etorkizuneko hauspoa beraiek direnez, eta asko eskubaloiaren inguruan kokatzen ditugunez, izan dadila landu beharreko bitartekoa. Bestalde, euskararen aldeko sugarrak pizturik jarrai dezan, Korrika ez dagoen urteetan Egia Euskaraz Eguna antolatzen dugu. Aurtengoa maiatzaren 16ean izango da eta leloa honakoa: *Ez dago kerik surik gabe, badakizu!*



AMAIA ILLARRETA

Intxaurrondoko Euskara Batzordea

«Eragile askok parte hartu dute gure egitasmoetan, eta, gaur egun, sarea indartuagoa dago»

Zein lorpen egin dituzue auzoan?
Euskararen erabileran eragitea. Erronka ezberdinak jarri izan dizkiogu auzoari, eta auzoak primeran erantzun du! Plazara Goaz batzordeak 20 urte bete behar zituenean, 20. Korrika eta, Baietz 20 ordu euskaraz Intxaurrondon! erronkarekin hasi ginen , Baietz 20 egun euskaraz Intxaurrondon! erronkara jauzi egiteko. Norbanakoengan eta komertzioetan eragitea zen helburua, horretarako, auzotarrak ahobizi eta belarriprest izatera bultzatu genituen; guztira, 650 pertsonaren konpromisoa lortu genuen. Iazko Euskaraldian berreragin genuen eta datuak bikoiztu egin ziren. Eragile ezberdinek parte hartu dute egitasmo horietan, eta, gaur egun, sarea indartuagoa dago, norbanakoez eta entitateez osatutako sarea.

Orain, amaitu berri dugu Nitik Harago, Baietz 11 Intxaurrondon! egitasmoa, eta gainditu dugu aurreko urteetakoa. Norbanakoak hamaika egunez ahobizi eta belarriprest txapak jartzera animatu ditugu, eta hamazazpi entitatetan ariguneak sortu dira. Hau da, Topagunetik 2020ra begira Euskaraldiarako zegoen proposamena aurkeztu ziguten, eta probaldian parte hartzera animatu ginen, egitasmoa gurera ekarriz eta gurea eginez.

Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzuen erronkak?
Nitik Harago Baietz 11 Intxaurrondon! egitasmoari jarraipena ematea. Hau da, mugimendu euskaltzalea indartzea: gazteak, helduak, adinekoak, euskara ikasten ari direnak, *ahobizi-ak, belarriprest*-ak, eta abar inplikatzea.



JOSEAN ABECIA

Bizarrain - Altzako Euskara Batzordea

«Orain arte euskara batzordean parte hartu duten eragileak inplikatuta jarraitzea da gure erronka nagusia»

Zein lorpen egin dituzue auzoan?
Garrantzitsuena izan da lortu dugula Altzako eragile gehienak inplikatzea proiektu berean, eta horri esker, euskalgintzaren inguruan dagoen komunitatea handitzea lortu dugu.

Zeintzuk dira dituzuen zailtasunak?
Gehienbat ekonomikoak. Altzako Euskara Batzordeak proiektu pila bat sortzen ditu, baina, askotan, horiek aurrera erameteko ez dauzkagu baliabide ekonomiko nahikoak; gainera, edukitzekotan, oso justu iristen gara horiekin.

Zertan zabiltzate orain?
Euskararen Egunean amaitu genuen aurtengo Altza Hadi! egitasmoa. Aurrekoan bezala, oso arrakastatsua izan da, eta egitarau oparoa prestatu genuen egitasmoak iraun zituen egunetarako; ia 500 pertsonak hartu dute parte. Bestalde, Bizarrain Euskara Elkarteak dinamizatzen duenez euskara batzordea, elkartean bururatzen zaizkigun proiektu ia guztiak batzordera eramaten ditugu, eta han erabakitzen dugu Bizarrainek kudeatuko dituen, edo euskara batzordeak eta horretan dauden eragile guztiek. Esaterako, auzoan egiten ditugun mintzodromoak.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?
Orain artekoa mantendu nahi dugu. Hau da, orain arte euskara batzordean parte hartu duten eragileak inplikatuta jarraitzea da erronka nagusia. Haiekin batera egin izan ditugun proiektuak errepikatu nahiko genituzke, eta, gainera, inplikazio maila handitzea gustatuko litzaiguke.

«Udalak herritar guztien hizkuntza aukera bermatu behar du»

Edurne Otamendi eta Alex Aisa | EUSKARA ZERBITZUKO LANGILEAK

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eginkizun nagusia da euskararen erabilleraren normalizazio prozesuan eragitea, hirian eta bere Udal Administrazioan euskararen berreskurapen osoa lortzeko. Edurne Otamendi Euskara Zerbitzuaren burua da, eta Alex Aisa, aldiz, Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako Atalaren burua.

Zein da Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuaren funtzioa?

Edurne Otamendi (E.O.): Udalak duen hizkuntza politika aurrera eramateaz arduratzen den zerbitzua da. Udalaren hizkuntza politikak udal osoari, eta, beraz, udalerri osoari eragiten dio, beraz, hizkuntza politika udal osoak egiten du, ez bakarrik Euskara Zerbitzuak. Hori behar bezala betetzeaz eta irizpideak emateaz arduratzen da gure saila. Helburua da Donostian euskararen ezagutza eta erabilera osoa lortzen joatea, eta, horretarako, euskararen normalizazioaren bidean lana egiten dugu.

Euskara Zerbitzua hiru ataletan dago banatuta. Atal bat da hirira begirako hizkuntza normalizazioaz arduratzen dena, hain zuzen, Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako Atala. Atal horren helburuak betetzeko daukagun tresna nagusia da Donostiako Euskararen Plan Orokorra. Bere iraunaldia amaitzear dagoenez, berria prestatzen ari gara. Bestalde, Udaleko Hizkuntza Normalizaziorako Atala dago: Udal Administrazioaren euskalduntzeaz eta erabilera areagotzeaz arduratzen den atala da.

Hirugarrenik, Itzulpen Atala dago. Udalak sortzen dituen dokumentu guztien itzulpen lana egiten du. Nagusiki, arduradun politikoek daukaten hizkuntza jarduna, eta herritarrei begira sortzen dena lantzen dute. Oinarrietako bat da udalak herritar guztien hizkuntza aukera bermatu behar duela. Beraz, ezin da ezer atera euskaraz ez dagoena. Atal horrek laguntza ematen dio udal barruko administrazioaz arduratzen den beste atalari. Besteak baino sail instrumentalagoa da.

Beraz, edukia itzultzeaz gain, udalaren barruan egiten duzuen lanketa zabalagoa da?

(E.O.): Udal barruan ez dugu bakarrik itzulpenekin funtzionatzen. Itzulpenena da zati bat, laguntzen diguna dokumentazio guztia, gutxienez, elebiduna izan dadin. Une honetan egunean dago Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 6. plangintza aldia, eta horretan jasota daude oso hizkuntza jarraibide zehatzak, udal administrazioak dituen prozedura eta ekintza administratibo guztietarako.



Udal barruan euskararen erabilera areagotzeaz arduratzen gara. Era berean, oinarrizkoa da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta, horregatik, udalak herritarrei begira ekoizten duen guztiak euskaraz egon behar du, edo gutxienez ele bitan.

Gainera, lanean dihardugu udal langileen hizkuntza euskara izan dadin. Hori zergatik? Bada, iruditzen zaigulako administrazioak eredugarritasunez jokatu behar duela herritarrei begira, beraz, beti joan behar du urrats bat aurrerago; hizkuntza normalizazioan zer esanik ez. Eredugarritasunez jokatzeaz gain, arnasgune funtzional bat izatera iritsi beharko luke administrazioak, eta ikusten dugu hori kontuan hartzea garrantzitsua dela.

Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaz gain, ze beste tresna erabiltzen dituzue udal barruan?

E.O.: Udaleko sail guztietan eta udaleko erakunde autonomoetan, sortuta ditugu Erabilera Batzordeak, sail bakoitzeko arduradunek eta langileek osatutakoak. Euskara Zerbitzuak ditu teknikari normalizatzaileak izendatuta sail horietako bakoitzean. 6. Plangintza aldian jasotako hizkuntza jarraibide nagusi horiek izanda, egiten dira urteko kudeaketa planak, urratsak egiten joateko. Horretarako, kontuan hartzen dira sail bakoitzaren izaera, egoera eta gaitasuna.

Helburuak betetzeko hainbat tresna ditugu, esaterako, hizkuntza eskakizunak. Une honetan, Donostiako Udalean langileen %92k dauka derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Langile berriak sartzen direnean, denei eskatzen zaie dagokion hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea. Euskara maila altua da udalean.

Bestalde, udalaren barruan Euskarazko Atalak ditugu izendatuta. Horiek dira udalean nagusiki euskaraz funtzionatzen duten atalak, nolabait esanda, arnasguneak. Guretzat atal horiek oso tresna onak dira. Bestalde, erabilera sustatzeko, beste hainbat teknika ere erabiltzen ditugu langileekin. Ezin ahaztu bestalde Euskaraldiak izan zuen garrantzia eta eragina. 2020an ere asmoa daukagu entitate gisa egitasmoan parte hartzeko.

Idatzizko euskara sustatzeko trebakuntzak egiten ditugu langileekin, euskaraz idatzi eta ekoitzi dezaten. Itzultzera bidali behar dena, bidaltzen dugu, baina normalizazioa lortzeko, garrantzitsua da edukiak euskaraz sortzea. Trebakuntza jarraitua egiten ahalegintzen gara,

> “Administrazioak eredugarritasunez jokatu behar du herritarrei begira. Beti joan behar du urrats bat aurrerago»

eta formazio horietako asko espezifikoak izaten dira, legediekin zerikusia dutenak, eta jendearen arretarekin lotutakoak, adibidez. Langile askok badute gaitasuna gaur egun, eta baditugu hainbat zirkuitu identifikatuta euskaraz funtzionatu ahal izateko.

Halaber, udalak hainbat zerbitzu eskaintzeko azpikontratatzen dituen enpresek ere Udal Administrazioaren irizpide eta balio berak betetzea ezinbestekoa da, eta, horretarako, enpresa horien kontratazio prozesuetan ere eragiten dugu. Administrazioaren prozeduraren barruan, zeharkakotasunaren bitartez, saiatzen gara esparru guztietan sartzen eta eragiten. Hori da Euskara Zerbitzuaren funtzioa udal barruan.

Hirian euskara normalizatzeko Donostiako Euskararen Plan Orokorra duzue indarrean urte bukaera arte. Nola dago egituratuta?

Alex Aisa: Hirira begira, daukagun tresna nagusia Euskararen Normalizaziorako Plan Orokorra da, eta helburu estrategiko nagusi batzuk ditu, besteak beste, erabilera eta ezagutza areagotzea, eta motibazioa eta sentsibilizazioa handitzea. Plana helburu estrategiko batzuen arabera antolatuta dago: jabekuntza, elikadura eta erabilera. Jabekuntzaren barruan, familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, eta euskalduntzea eta alfabetatzea daude. Euskararen erabileraren esparruan, berriz, administrazioa, arlo sozioekonomikoa (merkataritza eta ostalaritza), eta aisialdia eta kirola ditugu. Azken esparruan, elikaduran, kulturgintza, corpus plangintza eta euskararen kalitatea, eta hedabideak daude.

Planean zehaztuta dauden hiriko esparru horietan guztietan saiatzen gara euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen. Gainera, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituen zehar lerroak ditugu. Gehienbat, sentsibilizazioa eta zabalkundea jorratzen ditugu horien bitartez, esaterako, euskararen erabileraren aldeko motibazioa nola gizarteratu. Bestalde, auzoetako euskara batzordeek ere toki berezitua dute planean. ESEPek, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, ez ditu jasotzen bere baitan, baina guretzat oso tresna interesgarriak dira, Plan Orokorraren bitartez hirian txertatu nahi ditugun egitasmoak auzoetara ere zabaltzeko.

E.O.: Azaldu bezala, plana modu sektorialean antolatuta dago, eta gauzatzeko garaian, ekintza batzuk modu orokorrean egiten dira, baina geografikoki ere gauzatzen ditugu. Hau da, plan sektoriala auzo bakoitzak duen errealitatera moldatzen dugu nolabait.





Gipuzkoa
etorkizuna da.
Iritsi den
etorkizuna.

Etorkizuna orain

GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN